

## II - ARABAKO LURRALDE HISTORIKOAREN TOKI ADMINISTRAZIOA

### ARRATZUA-UBARRUNDIAKO UDALA

#### Jarduera ekonomikoen gaineko zerga arautzen duen ordenantza fiskalaren aldaketa behin betiko onartzea

Erreferentziako espedienteari alegaziorik egin ez zaionez, espedientea argitaratu da indarrean jartzeko.

#### JARDUERA EKONOMIKOEN GAINEKO ZERGA ARAUTZEN DUEN ORDENANTZA FISKALA

##### I. XEDAPEN OROKORRAK

###### 1. artikulua

Udal honek, Arabako Lurralde Historikoko Toki Ogasunak arautzen dituen uztailaren 19ko 41/1989 Foru Arauan eta uztailaren 19ko 43/1989 Foru Arauan aurreikusitakoarekin bat etorritik, ekonomia-jardueren gaineko zerga eskatzen du ordenantza honen arabera. Ordenantza honen zati da aplikatu beharreko tarifa eta diru-bilketaren aldia jasotzen dituen eranskina.

###### 2. artikulua

Ordenantza udal barruti osoan aplikatuko da.

##### II. ZERGA-EGITATEA

###### 3. artikulua

Zergaren zergapeko egitatea da udalerrian enpresa-, lanbide- edo arte-jarduerak egitea, lokal jakin batean egin edo ez, eta zergaren tarifetan zehaztuta egon edo ez.

Zerga honen ondorioetarako, abeltzaintza-jarduerak hartuko dira enpresa-jardueratzat, izaera independentea dutenean, meatzaritzakoak, industriakoak, merkataritzakoak eta zerbitzuetakoak. Beraz, ez dira halakotzat hartzen nekazaritzako, abeltzaintzako, basogintzako eta arrantzako jarduerak, eta ez dira zergapeko egitate.

Aurreko lerrokadan aurreikusitakoaren ondorioetarako, abeltzaintza independentetzat hartuko da 1259/1991 Legegintzako Errege Dekretuaren II. eranskinean ezarritakoaren arabera kasu hauetakoren batean dagoen abelburu-multzoa:

A) Abeltzaintzaren jabeak nekazaritzarako edo basogintzarako ustiatzen ez dituen lurretan bazkatzea edo elikatzea.

B) Landa-finketatik kanpo ukuiluratzea.

C) Transhumantea edo trasterminantea.

D) Batez ere hazi den finkan ekoitzi gabeko pentsuez elikatzen dena.

###### 4. artikulua

1. Jarduera bat enpresa-, lanbide- edo arte-izaerakoa dela joko da, norberaren kontura ekoizpen-bitartekoak eta giza baliabideak edo bietako bat antolatzea dakarrenean, ondasunen edo zerbitzuen ekoizpenean edo banaketan esku hartzeko.

2. Zergapeko jardueren edukia zergaren tarifetan zehaztuko da.

**5. artikulua**

Kargatutako jardueren egikaritzea zuzenbidean onargarria den edozein bitartekoren bidez frogatuko da, eta, bereziki, Merkataritza Kodearen 3. artikuluan jasotako bidez.

**6. artikulua**

Zerga honetan ez da zergapeko egitatetzat hartuko honako jarduera hauek gauzatzea:

1. Enpresen aktibo finkoan sartutako ondasunak besterentzea, baldin eta ibilgetu gisa behar bezala inbentariatuta agertu badira eskualdatu baino bi urte lehenago, eta saltzailearen erabilerara partikularreko eta pribatuko ondasunak saltzea, betiere denbora tarte berean erabili baditu.
2. Lan pertsonalen edo zerbitzu profesionalen ordainetan jasotzen diren produktuak saltzea.
3. Artikuluak erakustea, establezimendua apaintzeko soilik. Aitzitik, bezeroei opariak emateko artikulua jartzea zergapean egongo da.
4. Txikizkako salmenta denean, ekintza eta eragiketa isolatu bakarria egitea.

**III. SALBUESPENAK****7. artikulua**

1. Zergatik salbuetsita daude:

a) Estatuak, Euskal Autonomia Erkidegoa, Arabako Foru Aldundia, udal-erakundeak, Estatuak erakunde autonomoak eta aipatutako lurralde-administrazioetako zuzenbide publikoko antzeko erakundeak.

b) Jarduera gauzatzen hasten diren subjektu pasiboak, jarduera garatzen den zerga honen lehenengo bi zergaldietan.

Ondorio horietarako, ez da ulertuko jarduera bat egiten hasi denik honako kasu hauetan:

- 1) Aurretik beste titulartasun batekin garatu denean. Inguruabar hori gertatzen dela ulertuko da, besteak beste, bat-egite, zatiketa edo jarduera-adarren ekarpen kasuetan.
  - 2) Subjektu pasiboa sozietate-talde bateko kide denean, Merkataritza Kodearen 42. artikulua-aren arabera, salbu eta taldeko ezein enpresak aurretik garatu ez duen jarduera berri bat denean.
  - 3) Jarduera bera egin duten enpresek ehuneko 25etik gorako partaidetza dutenean.
- c) 1.000.000 eurotik beherako eragiketa-bolumena duten subjektu pasiboak.

Ez-egoiliarren Errentaren gaineko Zergaren zergadunei dagokienez, salbuespena establezimendu iraunkorraren bidez jarduten dutenei bakarrik aplikatuko zaie, baldin eta 1.000.000 eurotik beherako eragiketa-bolumena badute.

Nolanahi ere, salbuespen hori aplikatzeko baldintza izango da subjektu pasiboek letra honetan aurreikusitako eragiketa-bolumenaren betekizuna betetzen ez duten enpresen ehuneko 25 baino gehiagoko partaidetza ez izatea, zuzenean edo zeharka, salbu eta Sozietateen gaineko Zergari buruzko abenduaren 13ko 37/2013 Foru Arauaren 77. artikuluan aipatutako arrisku-kapitaleko sozietate edo funtsak direnean, baldin eta partaidetza sozietateen helburu soziala betetzearen ondorio bada.

Idatz-zati honetan aurreikusitako salbuespena aplikatzeko, arau hauek hartuko dira kontuan:

1. Sozietateen gaineko Zergari buruzko abenduaren 13ko 37/2013 Foru Arauaren 5. artikulua-ren 1. paragrafoan aurreikusitakoaren arabera zehaztuko da eragiketen bolumena.

2. Eragiketen bolumena, pertsona fisikoen errentaren gaineko zergaren, sozietateen gaineko zergaren edo ez-egoiliarren errentaren gaineko zergaren zergadunen subjektu pasiboen kasuan, zerga horien aitortpenak aurkezteko epea zerga hau sortu aurreko urtean amaitu den zergaldikoa izango da.

Zergei buruzko Foru Arau Orokorraren 35. artikuluko 3. paragrafoan aipatzen diren sozietate zibilen eta erakundeen kasuan, eta testamentu-ahalorde bat egikaritu gabe edo gozamen ahaltsu bat egikaritu gabe dauden jaraunspenen kasuan, eragiketen bolumena zerga hau sortu aurreko azken-aurreko urteari dagokiona izango da.

Zergaldi horrek urte naturala baino gutxiago iraun badu, eragiketen bolumena urtebetera igoko da.

3. Subjektu pasiboaren eragiketen bolumena kalkulatzeko, subjektu pasiboak egindako jarduera ekonomiko guztiak hartuko dira kontuan.

Erakundea sozietate-talde bateko kide denean Merkataritza Kodearen 42. artikulua araber, arestian adierazitako magnitudeak talde horretako entitate guztiei buruzkoak izango dira.

4. Ez-egoiliarren Errentaren gaineko Zergaren zergadunen kasuan, Espainiako lurraldean kokatutako establezimendu iraunkor guztiei egotz dakizkiekeen eragiketen bolumena hartuko da kontuan.

d) Indarrean dagoen legediaren arabera eraturako Gizarte Segurantzaren eta mutualitateen eta montepioen erakunde kudeatzaileak.

e) Ikerketako erakunde publikoak, irakaskuntzako establezimenduak, oso-osorik Estatua- ren, autonomia-erkidegoen, Arabako Foru Aldundiaren edo toki-erakundeen funtsekin edo ongintzakotzat edo onura publikokotzat jotako fundazioen funtsekin finantzaturako maila guztietan, eta irakaskuntzako establezimenduak, maila guztietan, baldin eta, irabazi-asmorik izan ez arren, hezkuntza-itunaren araubidean badaude, nahiz eta ikasleei liburuak edo idazmahaiko artiku- luak eman dizkieten, edo barnetegi-zerbitzuak eman dizkieten, nahiz eta mantenu berekoak izan.

f) Irabazi-asmorik gabeko urritu fisiko, psikiko eta sentsorialen elkarte eta fundazioak, irakaskuntzarako, hezkuntzarako, errehabilitaziorako eta elbarrien tutoretzarako egiten dituz- ten jarduera pedagogiko, zientifiko, asistentzial eta enpleguoengatik, nahiz eta helburu ho- rietarako erabiltzen diren tailerretako produktuak saldu, betiere salmenta horren zenbatekoa, ezein partikular edo hirugarren pertsonarentzat erabilgarria ez dena, lehengaiak erosteko edo establezimendua mantentzeko baino ez bada.

g) Gurutze Gorria eta erregelamendu bidez zehazten diren antzeko beste erakunde batzuk.

h) Nazioarteko itun edo hitzarmenen ondorioz salbuespena aplikatu behar zaien subjektu pasiboak.

2. Aurreko paragrafoko a), d), g) eta h) idatz-zatietan aipaturako subjektu pasiboek ez dute zergaren matrikulan alta-aitorpenik aurkeztu beharko.

3. Ogasun, Finantza eta Aurrekontu Saileko titularrak ezarriko du aurreko 1. paragrafoko c) idatz-zatian aurreikusitako salbuespena aplikatzeko zein kasutan eskatuko den Arabako Foru Aldundiari zuzendutako jakinarazpen bat aurkeztea, non jasoko baita letra horretan salbuespena aplikatzeko ezarritako baldintzak betetzen direla.

Ondorio horietarako, Ogasun, Finantza eta Aurrekontu Saileko titularrak jakinarazpen horren edukia, epea eta aurkezteko modua ezarriko ditu, baita bide telematikoz zein kasutan aurkeztu beharko den ere.

Aurreko 1. paragrafoko c) idatz-zatian aurreikusitako salbuespenari eragin diezaieketen aldaketei dagokienez, Jarduera Ekonomikoen gaineko Zergari buruzko uztailaren 19ko 43/1989 Foru Arauaren 13. artikuluko 2. paragrafoko hirugarren lerrokadan aurreikusitakoa beteko da.

4. Artikulu honetako 1. paragrafoko e) eta f) idatz-zatietan aurreikusitako salbuespenak erre- gutuak izango dira, eta, hala dagokionean, alderdi batek eskatuta emango dira.

## IV. SUBJEKTU PASIBOA ETA ZERGA-KUOTA

**8. artikulua**

Zerga honen subjektu pasiboak dira, zergadun gisa, Arabako Zergei buruzko Foru Arau Orokorraren 35. artikulua 3. paragrafoan aipatzen diren pertsona fisiko eta juridikoak eta erakundeak, baldin eta zergapeko egitatea sorrarazten duten jardueretako edozein udalerrian egiten badute, bai eta testamentu-ahalorde bat egikaritu gabe edo gozamen ahaltsua egikaritu gabe dauden jaraunspenak ere, betiere Arabako Lurralde Historikoan egiten badute zergapeko egitatea eragin duen edozein jarduera.

Testamentu-ahalordea egikaritzeko edo gozamen ahaltsua egikaritzeko dauden jaraunspenen kasuan, jarduera ekonomikoak egiten dituztela ulertuko da, Pertsona Fisikoen Errentaren gaineko Zergari buruzko azaroaren 27ko 33/2013 Foru Arauaren 24. artikuluko 1. paragrafoan ezarritako baldintza betetzen ez badute ere.

**9. artikulua**

Zerga-kuota kalkulatzeko, zergaren tarifak aplikatuko dira Jarduera Ekonomikoen gaineko Zergari buruzko uztailaren 19ko 43/1989 Foru Arauan eta hura osatzen eta garatzen duten xedapenetan jasotako aginduen arabera, eta udal honek onartutako eta ordenantza honen eranskinean araututako koefizienteak, indizea eta hobariak.

## V. ZERGALDIA ETA SORTZAPENA

**10. artikulua**

1. Zergaldia bat dator urte naturalarekin, alta-aitorpenen kasuan izan ezik; kasu horretan, jarduera hasten den egunetik urte naturalaren amaiera arte hartuko du, artikuluko honen 3. zenbakian xedatutakoari kalterik egin gabe.

2. Zergaldiaren lehen egunean sortzen da zerga, eta kuotak ezin izango dira murriztu, alta-aitorpenaren kasuan izan ezik, jarduera hasten den eguna ez badator bat urte naturalarekin. Kasu horretan, kuotak proportzionalki kalkulatu dira, jarduera hasten den egunetik abenduaren 31ra bitartean dagoen egun-kopuruaren arabera.

3. Baja-aitorpenen kasuan, zergaldia urtarrilaren batetik baja-aitorpena aurkezten den egunera artekoa izango da. Kasu horretan, zerga zergaldiaren lehen egunean sortzen da, eta kuota kalkulatzeko, urtarrilaren batetik baja-aitorpena aurkeztu den egunera bitartean dagoen hilabete kopuruaren proportzioan kalkulatu da.

Aurreko lerrokadan aipatutako hilabete-kopurua zenbatzeko, baja-aitorpena aurkezten den hilabetea osorik hartuko da kontuan.

Zenbaki honetan xedatutakoa ez da aplikatuko jardueraren hasiera-datatik baja-adierazpena 12 hilabete igaro ez badira. Kasu horretan, baja-data baja-adierazpena aurkezten den urteko abenduaren 31ra aldatuko da.

4. Ikuskizunen kasuan, kuotak jarduketara isolatuek ezartzen dituztenean, horietako bakoitza egiteagatik sortzen da sortzapena, eta dagozkion aitorpenak erregelamendu bidez ezartzen den moduan aurkeztu beharko dira.

## VI. KUDEAKETA

**11. artikulua**

1. Zerga matrikulatik aurrera kudeatzen da. Matrikula hori urtero egingo da udalerrri bakoitzeko, eta honako errolda hauek osatuko dute: jarduera ekonomikoak, subjektu pasiboak, zerga-zorrrak eta, hala badagokio, foru-errekargua. Matrikula jendearen eskura egongo da udaletxean.

2. Subjektu pasiboek alta-aitorpenak aurkeztu beharko dituzte, matrikulan sartzeko behar diren elementu guztiak adieraziz, ordenantza fiskal honen 11.1 artikuluan ezarritakoaren arabera eta erregelamendu bidez ezarritako epearen barruan. Ondoren, administrazio eskudunak dagokion likidazioa egingo du, eta subjektu pasiboari jakinaraziko dio; subjektu horrek dagokion diru-sarrerara egin beharko du. Halaber, zergapetutako jarduerak gauzatzean gertatzen diren aldaketa fisiko, ekonomiko edo juridikoen berri eman beharko dute subjektu pasiboek, baldin eta aldaketa horiek zerga honen ondorioetarako garrantzitsuak badira, eta erregelamendu bidez zehaztutako epe eta baldintzetan formalizatuko dituzte aldaketa horiek. Horri dagokionez, komunikazio horietan nahitaez jasoko da jarduera horiek gauzatzen diren higiezinaren katastro-erreferentzia.

Bereziki, ordenantza fiskal honen 7. artikularen c) letran aurreikusitako salbuespena aplikatu behar ez zaien subjektu pasiboek Arabako Foru Aldundiari jakinarazi beharko diote eragiketen bolumena. Era berean, subjektu pasiboek eragiketen bolumenean gertatzen diren aldaketak jakinarazi beharko dituzte, baldin eta aldaketa horrek ordenantza fiskal honen 7. artikularen 1. paragrafoaren c) idatz-zatian aurreikusitako salbuespena aplikatzea edo ez aldatzea badakar, edo ordenantza honen eranskinean aurreikusitako haztapen-koefizientea aplikatzeko kontuan hartu beharreko tartea aldatzea badakar.

Ogasun, Finantza eta Aurrekontuetako diputatuak ezarriko du komunikazio horiek zein kasutan aurkeztu behar diren, haien edukia, aurkezteko epea eta modua, eta bide telematikoz zein kasutan aurkeztu behar diren.

3. Zerga-ikuskapeneko jarduketan edo altak eta komunikazioak formalizatzearen ondorioz erroldan jasotako datuak sartzea, baztertzera edo aldatzea administrazio-egintzat hartuko da, eta errolda aldatzea ekarriko du. Erroldako datuei buruzko matrikularen edozein aldaketa egiteko, ezinbestekoa izango da errolda horiek aurrez aldatzea, zentzu berean.

4. Zerga hori autolikidazio-erregimenean eskatu ahal izango da, erregelamendu bidez ezartzen den moduan.

## **12. artikulua**

1. Udal honi dagozkio kudeaketa, likidazio, ikuskaritza eta bilketa ahalmenak, bai borondatezko aldian, bai premiamendu bidez.

2. Bere eskumenari dagokionez, honako hauek dagozkio: zerga honen inguruko matrikula jendaurrean jartzea, errekurtsioak eta erreklamazioak ebatzea, zerga kobratzea, salbuespenak eta hobariak aplikatzea eta zergadunari laguntza eta informazioa emateko jarduketak.

3. Arabako Foru Aldundiari bakarrik dagozkie matrikula osatzea eta gordetzea, jarduera ekonomikoak kalifikatzea, kuotak zehaztea eta dagozkion kobrantza-ordainagiriak egitea.

4. Udal honek foru-aldundiarekin lankidetzan jardungo du, zergaren matrikula osatu, mantendu, jarduera ekonomikoak kalifikatu eta dagozkion kuotak zehazteko.

5. Salbuespenak eman edo ukatzeko, foru-aldundiari jakinarazi beharko zaio hartzen den ebazpena.

## **13. artikulua**

Jarduerak kalifikatzeko eta kuotak zehazteko egintzen aurka jartzen diren errekurtsio eta erreklamazioak Arabako Zergei buruzko Foru Arau Orokorren 229. artikulutik 246.era bitartekoetan xedatutakoaren arabera arautuko dira, eta berraztertzeke errekurtsioa ebatzeko eskumena Arabako Foru Aldundiak izango du. Erreklamazio horiek aurkezteak ez du egintzen betearazpena etengo.

## **14. artikulua**

1. Dagozkion matrikula foru-aldundiak egingo du, eta udalari bidaliko dio.

2. Foru-aldundiak egindako matrikula jaso ondoren, jendaurrean jarriko da hamabost eguneko epean, eragindako zergadunek aztertu eta, hala badagokio, egoki iritzitako erreklamazioak egin ditzaten.

### **15. artikulua**

1. Jendaurrean jartzeko epea amaituta eta erreklamazioak ebatzita, emaitzaren ziurtagiria bidaliko zaio Arabako Foru Aldundiari, onar dezan.

2. Onartutakoan, Foru Aldundiak dagozkion ordainagiriak egingo ditu, eta Udalari bidaliko dizkio, dirua biltzeko.

### **Eranskina**

Lehenengo araua.

Zerga-kuota kalkulatzeko, zergapeko egitatean sartutako jardueri indarrean dauden Diputatuen Kontseiluaren uztailaren 23ko 573/1991 Foru Dekretu Arauemaileak onartutako zergaren tarifak aplikatuko zaizkie.

Bigarren araua.

Udalerri osoko egoera-koefizientea 1 da.

#### **Azken xedapena**

Ordenantza fiskal hau ALHAOn argitaratu eta hurrengo egunean jarriko da indarrean, eta 2022ko urtarrilaren 1etik aurrera sortzen diren sortzaperentarako izango ditu ondorioak, eta indarrean jarraituko du berariazko aldaketa edo indargabetzea erabaki arte.

Jende guztiak horren berri izan dezan ematen da aditzera hau, eta jakinarazten da horren aurka zuzenean administrazioarekiko auzi-errekurtsoa aurkeztu ahal izango dela Euskal Autonomia Erkidegoko Auzitegi Nagusian, iragarki hau argitaratu eta bi hilabeteko epean.

Durana, 2022ko urtarrilaren 18a

*Alkatea*

*M<sup>a</sup> BLANCA ANTÉPARA URIBE*